



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xendazaletasun atala
128. zka. Ignaziotar Bidea 3. etapa	Arantzazu-Araia/2018-11-17.18

Xendazale adiskideok:

2018 honetako azken irteera eta amaiera bikaina emateko etapa polita: Arantzazuko basilika ospetsutik Arabako Araia herritxora joango gara.

Ibilbide honek hiru zati ditu. Lehenengoa (Arantzazu-Urbia), eta hortik denok igaroko ginen ziur asko, igotzeko nahiz jaisteko, behin baino gehiagotan. Baita elurrarekin ere, okasio ahaztezin hartan bezala: Euskal Herriko Zeharkaldi Handiaren 11. etapan, Arantzazu-Otzaurte egin genuen, ziur asko ahaztuko ez duzuen zerbait (2010-2-21).





Bigarren zatia, Urbia eta bidegurutze garrantzitsua den Askiola mendilepoaren artekoa. Oraingoan ezkerretara utziko dugu San Adriango tunelera jaisteko bidea, eta eskuinetik eroso jaitsiko gara "Las Petroleras" aparkaleku ospetsurantz.

Eta hemendik aurrera Zalduondo-Araia bidegurutzea bilatuko dugu, "Garasteko Urtegia"ren parean. Helmuga oso hurbil dago, kilometro pare bat pasatxo eta Araiara iritsiko baikara, eta bertan amaituko dugu etapa hau.

Bake-gune txikitxo honek hainbat puntu interesgarri ditu. Zirauntza ibaiaren iturburua, Ajuria familiaren burdinola zaharra, VIII. mendeko Mirutegi edo Murutegi gazteluaren hondakinak, estilo barroko Udaletxea (1.771) Asparrena Ermandadearen armariarekin, XV. mendeko San Pedro eliza eta Andra Mari eta Amamioko San Joan baselizak, XII. mendekoak.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Arantzazu-Araia

Beharrezko denbora		4,45 ordu									
Goranzko desnibel metatua		808 metro									
Beheranzko desnibel metatua		909 metro									
Zeharretara egin beharreko distantzia		17.560 metro									
	Ertaina	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geralek.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-g.)
Aurkezteko ordua	07:40 (Bilbo plaza) eta 07:45 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:45 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXX jatetxea.
Prezioa	32 euro

Izena emateko azken eguna: 2018-11-15eko 12:00etan

Oharra: b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

